

Diploma banaketa Oñatiko Campusean

2008/05/13

Maiatzak 10ean, larunbata, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean ikasketa desberdinak egin dituzten 148 ikasleri banatu zitzairen diploma. Diploma banaketa eguerdiko 12:00etan ospatu zen, Oñatiko Santa Ana Auditorium-ean egindako ekitaldi akademiko baten.

Guztira, 148 ikaslek jaso zuten diploma, Enpresa Zientzien Fakultatean ikasketa desberdinak egin ostean. Zehazki, Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza, Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa eta Zuzendari Idazkaritza ikasketen 2007 promozioko 113 ikasleri banatu zitzairen diploma. Halaber, ekitaldian fakultateko ondorengo postgraduak egin zituzten 35 ikasleri ere banatu zitzairen diplomak: Enpresa Zuzendaritza Masterra, Banka eta Burtsa Masterra eta Kirol Entitateen Zuzendaritza eta Kudeaketa Aditu Ikastaroa. Kooperatibismoan Masterra eta Enpresa Proiektuen Zuzendaritza Masterra ikasketak egin zituztenek ere jaso zituzten diplomak.

Ekitaldian zehar, Mondragon Corporación Cooperativa-ko (MCC) presidente den Jose Maria Aldecoak, "Ya estoy graduado, ¿y ahora qué?" hitzaldia eman zuen. Ekitaldian, fakultateko dekanoa den Lander Beloki ere egon zen eta baita, ekitaldia itxi zuen Mondragon Unibertsitateko errektorea, Iosu Zabala.

